ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA

Udal liburutegian egin beharreko irakurketa-animazioko jarduerak

BASELEGA

Espedientearen zenbakia: CI1460 ***SAILA :*** *Kultura. Liburutegia*
Kontratu-mota: Zerbitzua
Kontratuaren xedea: ***ONDARROAKO UDAL LIBURUTEGIAN BURUTUKO DIREN IRAKURKETA-ANIMAZIOKO JARDUEREN DINAMIZAZIOAREN KONTRATAZIOA***
Kontratatzeko prozedura: Ireki super sinplifikatua

1. KONTRATUAREN XEDEA

Lizitazioaren xedea da Ondarroako Udal Liburutegian irakurzaletasuna sustatzeko jardueren zerbitzua kontratatzea eta lote hauetan banatuta:

Kontratua lotetan eta unitateko preziotan egiten da.

1.LOTEA – CPV 92511000-6	***Haurrentzako ipuin kontaketak***	***12 saio***
2.LOTEA – CPV 92511000-6	***Haurrentzako irakurle klubak***	***8 saio***

2. KONTRATUAREN HELBURUAK

Udal liburutegiaren eginkizunetako bat herritarren artean irakurzaletasuna sustatzea da. Irakurzaletasuna sustatzeko eta kultura zabaltzeko hainbat jarduera antolatuz, irakurzaletasuna eta biztanleriaren sektore ezberdinen eta Udal liburutegiaren arteko harremana indartu nahi da.

Helburuak honako hau dira:

- euskal haur literatura ezagutzea
- euskaraz idazten duten idazleak ezagutzera ematea
- irakurzaletasuna sustatzea eta literaturaz gozatzea
- umeak liburutegira hurbiltzea eta bide batez liburutegia sustatu eta liburu-mailegua bultzatu literaturarenganako binkulu afektiboa eraikiz.
- Euskal liburugintza indartzea
- Herritarren Kultur kontsumoan euskararen presentzia indartzea.
- Jardueretan hezkidetzan oinarritutako balioak barneratzea.

3. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren iraupena hauxe izango da:

HASIERAKO KONTRATUA noiztik noiz arte (datak)	Kontratua hasiko da maiatzaren 1ean eta amaituko da abenduaren 31an.

	Iraupen horren barruan, eman behar diren saioak eta prestazioak, miatzetik azaroaren bitarteko epean eman beharko dira. Data eta ordutegi zehatzak, agirizain-liburuzainak jakinaraziko dizkio adjudikatzaileari gutxienez hilabeteko aurretiaz.
LUZAGARRIA (gutxienez 2 hilabete lehenago)	Bai (*)
ZENBAT LUZAPEN	3
LUZAPEN BAKOITZAREN IRAUPENA (hilabetetan)	12 hilabete (urtarriletik abendura)
GEHIENEZKO IRAUPENA (HASIERAKO KONTRATUA + LUZAPENAK) (hilabetetan)	44 hilabete

(*) Kontratua luzatzea nahitaezkoa izango da kontratistarentzat, betiere kontratua amaitu baino bi (2) hilabete lehenago gutxienez jakinarazten bada.

4. LOTE BAKOITZEAN EGIN BEHARREKO ZEREGINAK:

1.LOTEA. – HAURRENTZAKO IPUIN KONTAKETAK (12 saio)

Helburua:

- ✓ Zerbitzua haurrentzako ipuinak kontatzea da.
- ✓ Helburua irakurzaletasuna ahozko narrazioaren bidez sustatzea da, bai eta liburutegia sustatzea eta saioetan parte hartzen dutenen artean mailegua sustatzea ere.

- Lote honi dagozkion saioak 4 eta 5 urteko haurrrentzat eta LH1 eta LH2ko haurrentzat izango dira.
- Enpresa adjudikaziodunak jarduera garatzeko ondoren adierazten den baldintza beteko duen dinamizatzailea izango dela konpromisoa hartzea:
  - ✓ Ipuin kontaketa saioak eskainiko duenak, euskal dinamizatzailea izango da. Lizitazioan parte hartu nahi duen enpresak zerbitzu hau emateko bideratuko duen pertsonak saioak euskaraz emango dituela bermatu beharko du. Horretarako bi bide izango ditu: euskararen gaitasun agiria aurkeztea(C1) edo 10 ipuin kontaketa saio euskaraz izana azken 3 urteetan.
  - ✓ Dinamizatzaileak hizkera ez-sexista erabili behar du, emakumeen edozein irudi diskriminatzaile edo estereotipo sexista saihestu ; eta berdintasunaren eta aniztasunaren balioak dituen irudia sustatu.
- Esleipedunak Udalaren Liburutegiaren ardurapean eta haren gomendioak kontutan hartuta lan egingo du eta horregatik enpresa adjudikaziodunak solaskide bat izendatu beharko du.
- Enpresa esleipedunak konpromisoa hartuko du kontratua gauzatzeko maila bakoitzerako kontalari desberdina izango dela.
- Ipuin kontaketa saioak Udal Liburutegian emango dira .
- Aldia : Maiatza-Azaroa bitartean
- Ordutegia : Goizez eta eguerdian. Eskola-orduetan.
- Iraupena : 45 minutuko saioak

- Saio bakoitza desberdina izango da gai aldetik eta umeen adina hartuko da kontutan.
- Udal Liburutegiak nahi dituen saioen argazkiak hartu eta udalaren webgunearen edo bestelako komunikazio kanal batzuetan argitaratu ahal izango ditu.

2.LOTEA. – HAURRENTZAKO IRAKURLE KLUBAK (8 saio)

Helburua:

✓ Zerbitzua haurren topaketak dinamizatzen datza, pertsona heldu batek lagunduta.

✓ Topaketa horietan irakurketarekiko interesa sustatuko da, irakurtzeko animazioko estrategien bidez, familiak inplikatuz.

- Lote honetan jarduera hauek egingo dira:
  - Irakurketa-kluba 4 eta 5 urte bitartekoentzat
  - Irakurketa-kluba 6 eta 8 urte bitartekoentzat.
- Aldia : Maiatza-Azaroa bitartean
- Ordutegia: Arratsaldez .
  - Lizitazioan parte hartu nahi duen enpresak zerbitzu hau emateko bideratuko duen pertsonak saioak euskaraz emango dituela bermatu beharko du. Horretarako bi bide izango ditu: euskararen gaitasun agiria aurkeztea(C1) edo azken 3 urteetan gutxienez 10 saio egin dituela egiaztatzea.
  - Udal Liburutegia arduratuko da izen-emateak kudeatzeaz eta onartutakoen zerrendak egiteaz.
  - Enpresa esleipedunak solaskide bat izendatu beharko du Udal Liburutegiarekin.
  - Kluben dinamizazioa burutuko duen pertsonak saio bakoitzaren edukia zuzendu, dinamizatu eta materiala emango du. Era berean, onartutako pertsonen zerrenda jasoko du eta enpresaren ardura izango da saioetako asistentzia-kontrola egitea eta saio bakoitza amaitzean Udal Liburutegiari jakinaraztea
  - Dinamizatzaileak erabiliko duen dokumentazio, irudi edo material orotan, ez da hizkera sexista erabiliko, ezta emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistarik erakusten duen irudirik ere. Halaber, hezkidetzan oinarritutako balioak sustatuko ditu: berdintasuna, ordezkaritza orekatua, aniztasuna, baterako erantzukizuna eta genero rolen eta identitateen aniztasuna.
  - Enpresa adjudikaziodunak bermatu behar du klub bakoitzerako programatutako saioen dinamizazioa pertsona berak egingo duela eta klubetarako edo saio baterako dinamizatzaile berri bat izendatuz gero, behar besteko aurrerapenaz justifikatu eta jakinarazi beharko da.
  - Udal Liburutegiak nahi dituen saioen argazkiak hartu eta Udalaren webgunearen edo bestelako komunikazio-kanal batzuetan argitaratu ahal izango ditu.

Ondarroan, 2022ko martxoaren 3a

Yolanda Urrosolo Olabarria
Agirizain-Liburuzaina